

2022ko TXOSTENA



📍 Bizkaia P. 15-16 behea, 20010 Donostia

☎ 943 47 24 26

✉ erroak@erroak.sartu.org

🌐 www.erroaksartu.org

AURKIBIDEA

	Or.
1.- Nor gara?	2
2.- 2022ko mugarriak	3
3.- 2022an garatutako jarduera	6
4.- Artatutako pertsonen profila	21
5.- Laguntzaileak	31
6.- Hemen aurkituko gaituzu	32
7.- Amaitzeko...	33

1.- NOR GARA?



"ERROAK Elkarteak enplegarritasuna, gizarteratzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen ditu. Eta, horretarako, ahalduz, baldioen aldaketa, bizitzaren jasagarritasuna eta emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko borroka sustatzen ditu"

ERROAK Gizarteratzeko Elkartea 1988ko uztailan sortu zen, pertsonen orientazioa, prestakuntza eta enplegua eskainiz eta beraien garapen pertsonala bultzatuz gizarteratzen laguntzeko asmoarekin.

ERROAK irabazi asmorik gabeko elkarte pribatu bat da, gizarte zerbitzuen sektorean dihardu, eta, zerbitzu publikoaren ikuspegitik, gizarte bazterketaren aurka borrokatzea du helburu. SARTU taldean sartuta dago, eta EAE osoan ezarrita dago. Kudeaketa pribatuaren dinamika badugu ere, zerbitzu publiko bat gehiago gara gizarte zerbitzuen sare orokorraren barruan, eta sare horren osagarri eta lagungarri gara.

Erakundearen izateko arrazoia eta helburua da arrazoi sozial, kultural, pertsonal, okupazional edo ekonomikoengatik egoera ahulean dauden pertsonak gizarteratzea. Gure misioa, bisioa eta balioak irudi honetan ikusten dira:



2.- 2022KO MUGARRIAK

2022ak, Covid-19aren osasun-pandemiak sortutako krisi ekonomikoa eta enplegu-krisia gainditzeko ahaleginak markatzen jarraitzen ditu. Helburua galdutako enplegua berreskuratzea da; izan ere, 2024an langabezia-tasa % 10etik behera jartzea aurreikusten du Enpleguaren Euskal Estrategiak.

2024an finkatutako epemuga kontuan hartuta, hainbat plan eta programa antolatu dira. Erroak Elkartetik abian jartzen diren dirulaguntzen hiru deialditan parte hartzen dugu:

1.- Enplegu-nitxo berrien eremuan lanbide-gaitasunen prestakuntza-ekintzak egiteko dirulaguntzen deialdia.

Deialdi honen bidez, gaur egun enplegu-nitxo berriekin zerikusia duten jarduera ekonomikoetan enplegua sortzeko dauden aukerak azpimarratu nahi dira.

2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoak zehazten duenez, «Digital, energetiko, klimatiko eta sozio-demografiko transizio hirukoitza gertatzen ari da, herrialdeen, negozioen, industrien, gizartearen eta pertsonen etorkizuna eraldatzeko gaitasuna duenak; baina enplegua sortzeko aukera ere izan daitekeenak, eta, horretarako, prestatutako eta trebatutako pertsonak eduki behar dira». «Kualifikazio handiko eskulana behar da, ondo prestatua eta moldagarria, eta saihestu egin behar da desorekak egotea biztanleria aktiboaren kualifikazioaren eta enpresek hiru trantsizioei lotutako profiletan dituzten beharren artean .»

Especializazioaren hiru lehentasun estrategikoak identifikatuta daude: 1.- digitalizazioa eta berrikuntza; 2.- osasuna eta adinekoen zaintza; eta 3.- trantsizio energetiko ekologikoa.

Kontuan hartuta enplegurako lanbide-heziketa dela lan-merkatuan laneratzen eta langileen enplegarritasuna hobetzen modu erabakigarrian laguntzen duen tresnetako bat; deialdiak prestakuntza-ekintzak finantzatzen ditu, EAEko langileek, batez ere langabeek, identifikatutako enplegu-nitxoekin lotutako eskaintza izan dezaten.

2.- Dirulaguntzen deialdia, Reskilling eta Upskilling ekintzak garatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesean biztanleria aktiboaren kualifikazioa eta birkualifikazioa prestatzeko.

Pertsonen beren jarduna optimizatzeko balio dieten prestakuntza-ekintzak dira.

- gaitasun berriak irakatsiz (upskilling) edo
- birziklatuz/prestatuz lanpostu berriak garatzeko (reskilling).

Oro har, *upskilling*ak langile espezializatuagoak sortzen ditu, eta *reskilling*ak langile moldakorrak.

Helburua da egungo lan-merkatura hobeto egokitzen diren langileak izatea; horretarako, prestakuntza-ekintzek sektore eta esparru estrategikoei lotuta egon behar dute, eta arreta berezia jarri behar dute konpetentzia eta enplegu berdeen prestakuntzan, pertsonen zaintzan eta despopulazio-arriskuan dauden eremuetan.

3.- Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak finantzatutako, “lan munduan txertatzeko poloa” proiektu eremuan, Berpiztu programaren barruan langabeei zuzendutako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen deialdia.

BERPIZTU programa Eusko Jaurlaritzak abian jarritako ekimena da, Euskadiko eskualde zigortuenen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzeko, Lan munduan txertatzeko Poloa izeneko proiektu eragilearen bidez.

Oarsoaldea lurraldeko eskualde zigortuenetako bat da, egoera sozial eta ekonomikoaren adierazleekin. Adierazle horiek, azken urteetan nabarmen hobetu diren arren, Gipuzkoan ikusitakoak baino apur bat kaskarragoak dira oraindik.

BERPIZTU programaren bidez, langabeen kualifikazioa eta enplegarritasuna hobetzen lagunduko duen eta eskualdeko langabezia-tasan zuzenean eragingo duen Enplegu Plan Integrala abian jartzea lortu da, Oarsoaldea Biziberritzeko Plan Estrategikoak planteatzen duen bezala.

Lan munduan txertatzeko Poloa proiektuaren Enplegu Planak jarduera-ildo batzuk planteatzen ditu, eta horien artean dago lanerako prestakuntzaren ildo; enplegurako lanbide-heziketa da laneratzeko eta langabeen enplegarritasuna hobetzeko modu erabakigarrian laguntzen duen tresnetako bat.

Deialdi horietara aurkezteak honako ondorio hauek izan ditu:

- 23 prestakuntza-ekintza garatzea, horietatik 3 lanbide-ziurtagirikoak.
- Ekintzak 1.890 prestakuntza-ordu dira, eta 301 pertsonak parte hartu dute.
- 36 pertsonak 2.847 orduko praktikak egin dituzte enpresetan (ziurtagiri profesionaleko prestakuntzak soilik egiten dituzte enpresan praktikak).

Prestakuntza-jarduera ez den beste esparru batean, 2022an dinamizazio komunitarioarekin lotutako proiektu bat hasi dugu. Urretxuko udalerrian **“Aniztasuna eta bizikidetzaren sustatzeko zerbitzua”** kudeatzen ari gara. Zerbitzu honen helburua aniztasuna lantzea da, izaera komunitarioarekin eta udalerrian bizi diren gizarte-erakundeekin lankidetzan.

Zerbitzu honetan bi lan mota garatzen ditugu:

- Bata, udalerrian dauden **bi fororen dinamizazioari** buruzkoa: “Aniztasunaren eta Bizikidetzaren Mahaia” eta “+65 Foroa”. Hausnarketarako, prebentziorako, beharrak identifikatzeko... guneak dira, eta horien bidez proiektuak eta jarduerak proposatzen

eta bultzatzen dira. Lehenengoa bizikidetzara bideratuta dago, eta bigarrena 65 edo urte gehiagoko pertsonen ongizatera.

Taldeek urte osoan zehar funtzionatzen dute eta 30 bat lagunek parte hartzen dute.

- Beste lana foroetatik proposatzen diren *jarduerak kudeatzea edota garatzea* da: Harrera eskola, Bizilagunak, Irakurketa errazeko kluba, Zurrumurruen aurkako prestakuntza...

61 pertsonak parte hartu dute urteko azken lauhilekoan (40 gizon eta 21 emakume).

3.- 2022AN GARATUTAKO JARDUERA




Pertsonen gizarteratzea eta laneratzea errazteko zerbitzu sorta zabala eskaintzen dugu, zeinaren bidez pertsonak ibilbide bat egin dezaketen beraien premia eta interesetara egokituta.

Gure jarduerak, funtsean, hiru eremu ditu esku hartzeko:

- Arreta eta orientazioa.
- Enplegurako prestakuntza eta gizarte eta hezkuntzako prestakuntza.
- Enplegua: lan merkatura hurbiltzea eta sartzea helburu duten hainbat programa.

Memoria bi zatitan egituratuta dago. Lehenengo zatian, urtean zehar garatutako arloak eta proiektuak aurkezten ditugu, horien deskribapen txiki batekin eta parte hartu duten pertsonen kopuruari buruzko aipamen batekin. Bigarren zatian, artatutako pertsonen profilarren azterketa laburra egiten da.

ARRETA ETA ORIENTAZIOA



Lanbide Orientazio Zerbitzua.

Erroak elkarte Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro laguntzailea da. Lanbiden izena emanda duten pertsoneri eskaintzen zaie Orientazio zerbitzua, beraien enplegarritasuna hobetzeko asmoarekin. Elkartzeko leku bat eskaintzen zaie eskatzaileari eta orientazioan diharduen profesionalari, eta leku horretan eskatzailearen profil profesionalaren balorazioa egiten dute elkarrekin, modu pertsonalizatuan. Pertsona bakoitzarekin lanerako plan bat ezartzen da, hainbat helbururekin eta eskatzailea lan merkatura gehiago hurbiltzeko hainbat ekintza eta jarduerarekin.

Lanerako orientazioaren osagarri moduan, **Enplegu Zentroaren** zerbitzua dago. Zerbitzu hori gune fisiko egonkorra da, non Lanbiden izena emanda duten pertsonak eskura dituzten enplegua bilatzeko prozesuan norberak kontsultatzeko moduko tresnak.

Pertsonak informazio eguneratua daukate, bibliografia kontsultatzeko, enplegu bilaketari buruzko gidak, ordenagailuak curriculumak eta aurkezpen gutunak diseinatzeko, Internet sarbidea posta kudeatzeko eta enplegu atarietan izena emateko..., eta enplegua bilatzen ari direnean planteatzen zaizkien edozein eratako premiak asetzera eta zalantzak argitzera joan daitezke bertara, han orientatzaile baten laguntza izango dute beti.

LANBIDEKO ORIENTAZIO ZERBITZUA	DIRUZ LAGUNTZEN DUEN ERAKUNDEA	ZERBITZUAN SARTZEA	E	G	GUZTIRA
Enplegurako Orientazio Zerbitzua	Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzua	Lanbideko bulegoak	697	729	1426
Enplegu Zentroa	Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzua	Lanbiden izena ematea	149	218	367

Lanbideko Orientazio Zerbitzuak banakako arreta emateaz gain, iraupen laburreko tailerrak eskaintzen zaizkie pertsonai, taldean, "Prestakuntza pilula" gisa. Horietan, praktikoki sakontzen da lana bilatzeko tresnekin lotutako gai jakin batean: Lanbideren webgunea, curriculum vitae, laneko elkarrizketa...

LANBIDERI LOTUTAKO DINAMIZAZIO JARDUERAK TALDEAN	EGINDAKO TAILER KOPURUA	ORDU KOPURUA GUZTIRA	E	G	GUZTIRA
Curriculum express	8	24	17	27	44
Enplegua bilatzeko kanalak	6	18	18	25	43
Trebetasun sozialak eta komunikaziokoak	6	18	14	23	37
Komunikazio eraginkorra laneko elkarrizketan	5	15	9	16	25
Helburu profesionala	4	12	9	11	20
Atera iezaiozu etekina Lanbide webari	1	3	5	7	12
GUZTIRAKOAK	30	90	72	109	181

Gizarteratze eta Laneratzeko unean Lagun egiteko Zerbitzuak

Artatzen diren pertsonen bizi baldintzak hobetzea helburu nagusizat duten hainbat programa dituzte. Erreferentziazko profesional baten laguntzarekin, zeinak denbora eta esfortzuak modu pertsonalizatuan eskaintzen dizkion, pertsonak gizarteratzeko proiektu pertsonal bat egiten du, eta abian jartzen laguntzen zaio.

Prozesu horretan, erabiltzaileaz gain, inguruneko baliabide guztiek parte hartzen dute (sozialak, prestakuntzakoak, lanekoak), esku hartze integrala sustatuta.

Hauek dira zerbitzu honetan garatzen ditugun programak:

- Laguntza espezializatuko programa.
- Gizarteratzeko Zerbitzu Integrala.
- Presoak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektua.

GIZARATERATZEKO ETA LANERATZEKO UNEAN LAGUNTZEKO ZERBITZUAK	DIRUZ LAGUNTZEN DUEN ERAKUNDEA	ZERBITZUAN SARTZEA	E	G	GUZTIRA
Laguntza Espezializatuko Programa	Gipuzkoako Foru Aldundia	Udaleko Gizarte Zerbitzuek eskatuta eta GFAk onartuta	12	34	46
Gizarteratzeko Zerbitzu Integrala	Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Saila	Erroak Elkartea	15	15	30
Presoak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektua	Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila	Martuteneko espetxea	2	24	26

PRESTAKUNTZA



Gizarte eta hezkuntzako prestakuntza

Autonomia pertsonalean zertxobait mugatuta egon edo ohitura, trebetasun sozial edo bitarteko pertsonalik ez edukitzeagatik gizartean baztertuta dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten pertsonekin lan egiteko trebatuta dagoen zerbitzu espezializatu bat da Gizarte eta hezkuntzako prestakuntza.

Esku hartzea pertsonak gizarteratzera bideratuta dago, eta lanbideak ezagutzeko, alfabetatze digitalerako eta trebetasun eta gaitasun pertsonal zein sozialak garatzeko taldeko jarduerak eskaintzen ditu. Esku hartze hori gizarteratzeko ibilbidean banakako laguntza emanez indartzen da.

Esparru horretan, izaera okupazionalako, psikosozialeko, sozioedukatiboko eta gizarteratze-eta laneratze arloko esku hartzeak bateratzen dira, parte hartzaileen autonomia mailarik handiena sustatzeko.

Gizarte eta Hezkuntzako Prestakuntzak pertsoneri dagokienez dituen helburu orokorrak dira erabiltzaileei oinarrizko arretak eskuratzeko gune hurbila eta irisgarria eskaintzea; bazterketa egoerak prebenitzea eta arintzea; pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea; eta pertsoneri laguntzea bizitza proiektu autonomoa garatzen utziko dieten baliabide sozial eta pertsonalak eskuratzen.

Gizarte eta hezkuntzako prestakuntzan, honako zerbitzu/programa hauek sartzen dira:

- Gizartean baztertuta egoteko arriskua duten pertsonekin Gizarte eta Hezkuntza alorrean eta alor Psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.
- Gizarteratzeko Eguneko Zentroa.
- Sendotu Aldiberean Programa Europarra.
- Gizarteratzeko Gizarte eta Hezkuntzako Tailerren Sarea.
- Andere guneak, aktibazio eta ahalduntze tailerrak.

GIZARTE ETA HEZKUNTZA ALORREKO PROGRAMAK/ZERBITZUAK		GARATUTAKO JARDUERA	URTEKO ORDUAK
Gizartean baztertuta egoteko arriskua duten pertsonekin Gizarte eta Hezkuntza alorrean eta alor Psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	ELKARREKIN Taldea	Hartu denbora bat zuzentzat	852
	AURRERA Taldea	Autonomia eta eguneroko bizimoduaren kudeaketa	852
	EMAKUMEEN Taldea	REZIKL-ARTE: Sormenezko eskulanak	495
	BIDEAN Taldea	Oinarrizko sukaldaritza Gainazalak garbiketa Oinarrizko pintura-eragiketak	852
Gizarteratzeko eguneko zentroa		Egur-jarduerak, eskulanak eta baratza	1135
Sendotu aldiberean Ibilbide integratuak	Emakumeak ahalduntzeko tailerra	Ehungintzako elementuak birziklatzeko tailerra Osasuna eta zainketak Ingurunean parte-hartzea	190
	Oinarrizko gaitasunen eta teknologia berrien tailerra	Gaitasun pertsonalak Osasuna eta zaintza pertsonala Ingurunearen ezagutza Gaitasun digitalak	350
	Lanbideen ezagutza	Gelak eta komunak garbitzeko oinarrizko gaitasunak	50
	Lanbideen ezagutza	Ordezteko oinarrizko gaitasunak eta zeregin osagarriak dendetan	70
	Ahalduntze-tailerra eta lanbideak	Gelak eta komunak garbitzeko oinarrizko gaitasunak	250
Gizarteratzeko Gizarte eta hezkuntza alorretako tailerren sarea*	Tailerren sarea: Ofizioak	Taberna-jatetxeko zerbitzaria Sukaldeko laguntzailea Soldadura	616
	Tailerren sarea: Kultur hedapena	Gaitasun soziopertsonalak Euskararen hastapenak Ingurumeneko eta kontsumoko gela Ingurunearen ezagutza	128
	Tailerren sarea: Informatikako gela	Teknologia berrietarako hurbilpena: Informatika eta internet, oinarrizko ezagutzak	158
Andere guneak		Aktibazio eta ahalduntze jarduerak Oinarrizko gaitasun digitalak Baliabideen ezagutza	224

(*) Gizarte eta hezkuntza arloko programa guztiek taldeko jardueretan parte hartzen

Honako taula honetan zehazten dira zerbitzu horietan garatzen diren jarduerak:

GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO PROGRAMAK/ZERBITZUAK		DIRUZ LAGUNTZEN DUEN ERAKUNDEA	ZERBITZUAN SARTZEA	E	G	GUZTIRA
Gizartean baztertuta egoteko arriskua duten pertonekin Gizarte eta Hezkuntza alorrean eta alor Psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	ELKARREKIN taldea	Donostia-San Sebastiangoko Udala	Udaleko Gizarte Zerbitzuak	3	15	18
	AURRERA Taldea			2	19	21
	EMAKUMEEN Taldea			0	20	20
	BIDEAN Taldea			9	20	29
Gizarteratzeko eguneko zentroa		Gipuzkoako Foru Aldundia	Udaleko Gizarte Zerbitzuek eskaera egin eta GFAk eskaera onartu	1	23	24
Sendotu aldeberean. Ibilbide integratuak	Emakumeak ahalduzko tailerra	Europako Gizarte Funtza eta Gipuzkoako Foru Aldundia	Erroak Elkarteak	15	0	15
	Oinarriko gaitasunen eta teknologia berrien tailerra		Pasaia, Lezo eta Oiartzuneko udal gizarte zerbitzuak	8	1	9
	Lanbideen ezagutza		Erroak Elkarteak	8	4	12
	Lanbideen ezagutza		Erroak Elkarteak	9	2	11
	Ahalduntze-tailerra eta lanbideak		Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Buruntzaldeako eskualdea	8	5	13
Gizarteratzeko Gizarte eta hezkuntza alorretako tailerren sarea	Tailerren Sarea: Ofizioak	Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Saila, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila- etengabeko ikaskuntzaren arloa, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.	Erroak Elkarteak	4	42	46
	Tailerren sarea: Kultur hedapena					
	Tailerren sarea: Informatikako gela					
Andere guneak, Aktibazio eta ahalduntze tailerrak		Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Saila	Erroak Elkarteak	8	0	8

Enplegurako prestakuntza

Langabezian dauden langileentzako prestakuntza planak garatzen ditugu. Honako hauek bereizten ditugu:

- **Profesionaltasun ziurtagiriak dituzten ikastaroak: Lanbide eta Sendotu Aldeberean.**

Lanbide prestakuntzako ikastaroak dira, lanbide jakin bateko ezagutza teknikoak eta enplegarritasuna hobetzeko jarrerazko gaitasunak eskuratzeko. Prestakuntza teoriko-praktikoa enpresetan egiten diren praktikekin osatzen da, eta horrek benetako lan ingurunean trebetasunak, abileziak eta ezagutzak eskuratzeko ahalbidetzen du.

Urtean zehar hainbat jarduera sektoretan ematen dira prestakuntza programak: ostalaritza, arreta soziosanitarioa, irakaskuntza, eraikin eta lokalen garbiketa, soldadura, iturgintza, gas-berokuntza,...

- Lanbideren ikastaroak
 - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen ditu.
 - Sarbidea: Lanbideren webgunean izena ematea.

LANBIDEREN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EKINTZAK	PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK	EGINDAKO JARDUERA KOPURUA	ORDUAK EKINTZAKO	ORDUAK GUZTIRA	E	G	GUZTIRA
Enplegurako prestakuntza profesionalaren irakaskuntza	3. MAILA	1	340	340	6	8	14
Jatebtxeko eta tabernako oinarriko lanak	1. MAILA	1	210	210	10	5	15
Jatebtxeko zerbitzuak*	2. MAILA	1	500	500	7	6	13
Sukaldaritza*	2. MAILA	1	730	730	2	10	12
Eraikin eta lokaletako gainazalak eta altzariak garbitzea*	1. MAILA	1	150	150	6	6	12
Pertsonei etxean gizarte- eta osasun-arreta ematea*	2. MAILA	1	480	480	14	1	15
Mendeko pertsonei gizarte-erakundeetan gizarte- eta osasun-arreta ematea	2. MAILA	1	370	370	13	2	15
Elektrodo estalizko eta TIG bidezko soldadura	2. MAILA	1	640	640	1	14	15
Oxigas bidezko soldadura eta mig/mag bidezko soldadura	2. MAILA	3	430	1290	3	33	36
Etxeko iturgintza eta berotzeko eta girotzeko eragileak	1. MAILA	1	320	320	2	13	15
Instalazio argailuak eta gas-aparatuak muntatzea, zerbitzuan jarzea, horien mantentze-lanak eta ikuskatzea	2. MAILA	1	460	460	0	14	14
GUZTIRAKOAK		13		5490	64	112	176

(*) Prestakuntza-ekintzetako batzuk bi urte bitartekoak dira, batzuk 2021 hasi eta 2022an bukatzen dira.

ENPRESETAKO PRAKTIKAK, LANBIDEREN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EKINTZEI LOTUTA	PERTSONA BAKOITZAK EGINDAKO GUTXIENKO ORDU KOPURUA	E	G	GUZTIRA
Enplegurako prestakuntza profesionalaren irakaskuntza	40	6	4	10
Jatetxeko eta tabernako oinarrizko lanak	80	8	4	12
Jatetxeko zerbitzuak	80	6	4	10
Sukaldaritza	80	0	10	10
Eraikin eta lokaletako gainazalak eta altzariak garbitzea	80	4	4	8
Pertsonen etxean gizarte- eta osasun-arreta ematea	120	13	2	15
Mendeko pertsonen gizarte-erakundeetan gizarte- eta osasun-arreta ematea	80	12	4	16
Etxeko iturgintzako eta berotzeko eta girotzeko eragiketak	160	1	8	9
Instalazio hargailuak eta gas-aparatuak muntatzea, zerbitzuan jarzea, horien mantentze-lanak eta ikuskatzea	80	0	10	10
Oxigas bidezko soldadura eta mig/mag bidezko soldadura	40	0	3	3
Elektrodo estalizko eta TIG bidezko soldadura	40	1	11	12
GUZTIRAKOAK*	11,666	51	64	115

(*) 115 pertsonak 11666 orduko praktikak egin dituzte.

▪ Sendotu Aldibereanen ikastaroak

SENDOTU ALDIBEREAN-EN PRESTAKUNTZA EKINTZAK	P.Z.	EGINDAKO JARDUERA KOPURUA	ORDUAK EKINTZAKO	DIRUZ LAGUNTZEN DUEN ERAKUNDEA	ZERBITZUAN SARTZEA	E	G	GUZTIRA	PRAKTIKEN ORDU KOPURUA
Eraikin eta lokaletako gainazalak eta altzariak garbitzea	1. MAILA	1	150	Europako Gizarte Funtza eta Gipuzkoako Foru Aldundia	Erroak Elkartea	6	7	13	879
Sukaldaritzako oinarrizko lanak	1. MAILA	1	270			6	9	15	1224
Mendeko pertsonen gizarte-erakundeetan gizarte- eta osasun-arreta ematea	2. MAILA	1	370			13	2	15	1127
GUZTIRAKOAK		3	790			25	18	43	3230

36 pertsonak 3230 praktika-ordu egin dituzte enpresetan

▪ Beste ikastaro batzuk

BERPIZTU-Oarsoaldea	P.Z.	ORDU KOPURUA EKINTZA BAKOITZEKO	E	G	GUZTIRA	PRAKTIKEN ORDU KOPURUA
Jatetxeko eta tabernako oinarrizko lanak	1. MAILA	210	6	10	16	1.014
Jatetxeko zerbitzuak	2. MAILA	500	6	9	15	779
Eraikin eta lokaletako gainazalak eta altzariak garbitzea	1. MAILA	150	5	10	15	1.054
TOTALES		860	17	29	46	2.847

36 pertsonak 2.847 orduko praktikak egin dituzte enpresetan.

 ➤ **LANBIDE-ikastaroak profesionaltasun-ziurtagiririk gabe**

LANBIDE-ikastaroak profesionaltasun-ziurtagiririk gabe	EGINDAKO JARDUERA KOPURUA	ORDU KOPURUA EKINTZA BAKOITZEKO	ORDUAK GUZTIRA	E	G	GUZTIRA
Konpetentzia digitalak	7	50	350	35	46	81
PZ 1. mailaren aurreko prestakuntza: jatetxeko eta tabernako oinarrizko zereginak	1	80	80	0	11	11

PRESTAKUNTZA-EKINTZAK ENPLEGU-NITXOAK (Z.P. gabe)	EGINDAKO JARDUERA KOPURUA	ORDU KOPURUA EKINTZA BAKOITZEKO	ORDUAK GUZTIRA	E	G	GUZTIRA
Konpetentzia digitalak	4	50	200	20	31	51

RESKILLING Y UPSKILLING jarduerak (P.Z. qabe)	JARDUERA KOPURUA	ORDU KOPURUA EKINTZA BAKOITZEKO	E	G	GUZTIRA
Eraikin eta lokaletako gainazalak garbitzea eta tratatzea, makineria erabilia	1	60	3	11	14
Esku hartu beharreko espazioen barruan dauden altzariak garbitzea.	1	30	3	11	14
Eraikinetan eta lokaletan zoruak, paretak eta sabaia garbitzea	1	30	2	7	9
Kristalak garbitzea eraikin eta lokaletan	1	30	2	13	15
Arreta soziosanitarioan esku hartzea erakundeetan	1	70	7	5	12
Erakundeetako higiene- eta elikadura-arretan esku hartzea	1	70	9	1	10
Ostalaritzan segurtasun, higiene eta ingurumen-babeseko arauen pean jardutea	1	60	5	6	11
Batchcooking	1	40	8	6	14
Sasoiko sukaldaritza	1	30	9	6	15
Gizataldeentzako sukaldaritza	1	40	4	6	10
Sukaldaritza osasungarria familian	1	40	4	8	12
Sukaldaritza begetarianoa eta beganoa	1	40	5	10	15
Gasa hartzen duten instalazioak zerbitzuan jartzea, ikuskatzea eta berrikustea	1	80	0	11	11
Gas-aparatuak martxan jarri eta egokitu	1	80	0	14	14
Instalazio hartzaileak eta gas-aparatuak mantendu eta konpondu	1	80	1	13	14
Instalazio hartzaileetan eta gas-aparatuak arriskuak prebenitzea	1	50	1	13	14
GUZTIRA	16	830	63	141	204

➤ **INCORPORA Prestakuntza gunea:**

Hainbat sektoretan egiten da prestakuntza (ostalaritza, merkataritza, garbiketara), eta Incorpora erakundearen erabiltzaile diren langabeen zuzenduta dago. Lanpostu/lanbide baterako gaitasun tekniko espezifikoak eskuratzen dira, baina ezaugarri bereizgarria da, talde laneko dinamika baten bidez, edozein enplegutarako beharrezkoak diren zeharkako gaitasun nagusiak ere eskuratzen direla. Normalean, zeharkako gaitasun horiek lan esparrutik kanpo eskuratzen ditugu; beste batzuk gure ezaugarri pertsonalen parte dira, baina ia guztiak ikasi eta bultzatu egin daitezke horiek lantzerantz bereziki bideratutako prestakuntzaren bidez.

INCORPORA PRESTAKUNTZA GUNEETAKO PRESTAKUNTZA EKINTZAK	ORDU KOPURUA	DIRUZ LAGUNTZEN DUEN ERAKUNDEA	ZERBITZUAN SARTZEA	E	G	GUZTIRA
Pisuetako zerbitzaria	140	"La Caixa" Fundazioa	Erroak Elkartea eta beste elkarte batzuk	10	3	13
Merkataritzako laguntzailea	150			10	6	16
GUZTIRAKOAK	290			20	9	29

ENPLEGUA



Laneko Bitartekaritza eta Sustapena

Erroak elkartean uste dugu enplegua lortzea eta hori baldintza duinetan mantentzea dela gizarteratzea lortzeko biderik onenetako bat. Hori dela eta, bitartekaritza- eta lan sustapenaren arloa funtsezkoa da erakundearen barruan, bai bitartekari aritzen garen pertsonentzat, bai Erroak erakundearen gainerako zerbitzu eta proiektuentzat.

Lan bitartekaritzako zerbitzua honako ekintza hauen bidez garatzen da:

- Enplegua eskaintzen duten enpresak eta enplegua eskatzen duten pertsonak elkarrekin harremanetan jartzen ditu, honako ekintza hauen bitartez:
 - Lan eskaintzak bilduz eta kudeatuz.
 - Eskatutako profilerak egokituak bilatuz: enplegu poltsa
 - Hautagaitzen aurrehautaketa eginez
 - Kontratazioan zehar, enpresari eta kontratatutako pertsonari lagun eginez.
 - Lan merkatuari buruzko informazioa bilduz
 - Gipuzkoa lan eremutat duten enpresen sarearen aztertuz.
 - Pertsonak EGE irizpideak (Enpresaren Gizarte Erantzukizuna) aintzat hartuz kontratatzeari lehentasuna ematea eta joera horri buruz sentsibilizatzea
- Erakundeak enplegu agentzia gisa duen baimenaren babespean egiten da lan bitartekaritzako lana (identifikazio zk.: 1600000023).

Hauk dira Bitartekaritza eta lan sustapeneko zerbitzuan sartzen diren programak:

- Kudeaketa aktiboa gizarteratzeko eta enplegarritasuna hobetzeko.
- Kontratazioan lagun egiteko zerbitzua.
- La Caixaren Incorpora Programa.

LANEKO BITARTEKARITZA ETA SUSTAPENA			
Kontaktatutako enpresa kopurua	908	Eskaintzak sektoreko	%21, Eremu soziosanitarioa %17, Garbiketa %17, Turismo eta Ostalaritza %15, Zerbitzuak
Kudeatutako enplegu eskaintzen kopurua	279	Lortutako kontratu kopurua	173

LANEKO BITARTEKARITZA ETA SUSTAPENA	E	G	GUZTIRA		
Artatutako pertsonen kopurua	323	217	540	Pertsonen zailtasun egoerak	%54, 45 urtetik gorakoak %42, immigranteak %32, laguntza sozialen hartzaileak %15, familia kargekin %12, Oso iraupen luzeko langabezia
Zailtasun egoeran kontratatutako pertsonen kopurua	71	42	113		
Kontratazioari jarraipenarekin artatutako pertsonak	35	18	53		

Autoenplegua

Lan merkatuan sartzea ez da soilik besteren konturako enplegu baten bidez gertatzen, norberaren kontura ere sar daiteke. Erroaken autoenplegurako programa bat dugu; norberaren kontura jarduera bat (langile autonomoak, mikroenpresak,...) hasi nahi duten ekintzaileei tutoretza eta laguntza eskaintzen dien zerbitzu bat da programa hori.

AUTOENPLEGUA	DIRUZ LAGUNTZEN DUEN ERAKUNDEA	ZERBITZUAN SARTZEA	E	G	GUZTIRA
Aholkularitzako tutoretzak	"La Caixa" fundazioa	Erroak Elkartea	24	25	49
Sortutako enpresa berriak			5	9	14

Laneratzeko enpresak

Irabazi asmorik gabeko ekimen ekonomikoa da, eta bere helburua da gizartean baztertuta bizi diren edo horretarako arriskuan dauden eta lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeak laguntzea eta gizartean eta lanean sartzea.

BETERRI ERROTUZ SLU irabazi asmorik gabeko laneratze enpresa bat da, 2019an sortua Beterri-Buruntzako udalekin (Astigarraga, Andoain, Hernani, Lasarte- Oria, Urnieta eta Usurbil) eta Erroak elkartearekin lankidetzan.

Komunitatean jarduera eta aberastasun ekonomikoa sortzen duen ekoizpen egitura du, eta tokiko garapenarekin, gizarte kohesioarekin eta iraunkortasunarekin konpromiso argia dauka. Ingurune naturala eta hirikoa garbitu, zaindu eta kontserbatzeko zerbitzuak eskaintzen ditu, baita komunikazio zerbitzuak ere (postontzietan banatzea, kartelak jartzea,...).

LANERATZE ENPRESAK	2022 URTEKO FAKTURAZIOA	LANPOSTUAK			LANERATZE PROZESUAN DAUDEN PERTSONAK		
		E	G	GUZTIRA	E	G	GUZTIRA
BETERRI ERROTUZ S.L.U - E.I.	204.316,98 €	3	9	12	3	3	6

4.- ARTATUTAKO PERTSONEN PROFILA


Erroak elkarteak **guztira 2.151 pertsona artatu** ditu 2022an.

Jarraian aurkezten den azterketa estatistikoa 1.251 pertsonari buruzkoa da. Pertsona horiek gure datu basean erregistratu dira, gure erakundera eskaera zuzen batekin joan direlako eta gure zerbitzuren batean parte hartu dutelako. 2.151 kopurura arteko gainerako pertsonak ez dira sartu haien datuak Lanbide orientazio aplikazioan erregistratzen direlako, Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro laguntzaile gisa ematen dugun zerbitzua delako.

Generoa

Artatutako pertsonen banaketa nahiko orekatua da generoaren arabera, nahiz eta gizonetzkoen ehunekoa zertxobait handiagoa izan.


Sexua	Pertsonak guztira
Emakumea	608
Gizona	643
Guztira	1251



Adina

Nabarmenezkoa da artatutako pertsonen %42k 45 urte baino gehiago dutela.



Adina	Emakumeak	Gizonak	Guztira
<18	4	4	8
18-25	59	96	155
26-35	100	124	224
36-45	176	164	340
>45	269	255	524
Guztira	608	643	1251



Eskualdea

Artatutako pertsonen %86a Donostialdeko eskualdean bizi dira, eta %60a Donostiako udalerrian.


Eskualdea	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Bidasoa Behea	26	39	65
Donostialdea	538	539	1077
Goierri	12	12	24
Tolosaldea	18	24	42
Beste eskualde batzuk	14	29	43
Guztira	608	643	1251




Lanbide prestakuntza eta trebakuntza

Pertsonen %48ak atzerriko ikasketak ditu homologatu gabe, eta %21a ez da derrigorrezko prestakuntzatzat jotzen den mailara iristen.

Prestakuntza	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Ikasketarik gabe	16	61	77
Lehen mailako ikasketak	86	105	191
DBH	40	50	90
Prestakuntza Zikloak/LH	87	70	157
Batxilergoa	52	34	86
Unibertsitateko ikasketak	31	17	48
Atzerriko ikasketak homologatu gabe	296	306	602
Guztira	608	643	1251






Pertsonen %16k lanbide trebakuntza du. Sexuaren arabera bereiziz gero, emakumeen kasuan, ehuneko %19ra arte igotzen da, eta gizonen kasuan, %14ra arte jaisten da.




Zailtasun egoerak

Artatutako 1.251 pertsonetatik %84 zailtasun egoeraren batean daude. Datuak sexuaren arabera bereizterakoan, ikusten da artatutako emakume guztietatik %81 zailtasun egoeran daudela, eta gizonen kasuan ehunekoa %87ra igotzen da.



Jarraian, taula honetan jaso dira pertsonekin lan egiteko prozesuak zailtzen dituzten zenbait egoera: atzerriko immigratzailea, guraso bakarreko familia, laguntza sozialen jasotzailea,... Ondorengo grafikoa, ohikoenak edota intzidentzia handiena/txikiena dutenak jasotzen dira, pertsona gizona edo emakumea den kontuan hartuta. Kontutan hartu behar da pertsona berak zailtasun-egoera bat baino gehiago izan ditzakeela aldi berean.

Zailtasun egoera	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Atzerriko immigrazioa	307	358	665
Laguntza sozialen jasotzailea	234	231	465
Guraso bakarreko familia	147	7	154
Gazteak ahultasun egoeran	70	127	197
Zailtasun fisikoa/sentsoriala	26	39	65
Zailtasun psikikoa/gaixotasuna-nahasmendu mentala	30	63	93
Zailtasun fisikoaren/sentsorialaren ziurtagiria	24	27	51
Zailtasun psikikoaren/gaixotasun mentalaren ziurtagiria	19	40	59
Askatasunik gabe	3	54	57
Etterik gabe	4	42	46
Adikzioak	10	34	44
Genero indarkeria	31	0	31
Gutxiengo etnikoa	9	14	23
Beste egoera batzuk	39	34	73



Hala ere, badira beste egoera asko aurretik esandakoetatik aparte: Laguntza sare sozialik ez izatea edota bakardadea; motibazio txikiko pertsonak; onartu gabeko zailtasun handiak dituzten pertsonak; salatu gabeko genero indarkeria; baliabide ekonomikorik eduki ez eta prestaziorik/laguntzarik ere jasotzen ez dutenak, horiek eskuratzeko baldintzarik ez

izateagatik; horrek eraman gaitzake esatera ia pertsona guztiak zailtasun sozialeko egoeran daudela.

Egoera ekonomikoa

Artatutako pertsonen egoera ekonomikoa da haien profila aztertzean gure ustez garrantzitsua den beste datu bat: pertsona horien %35ak ez du diru sarrerarik. %65ak diru sarrerak ditu, baina diru sarrera horietako gehienak laguntza sozialetatik datoz; izan ere, pertsonen %44k DSBEtik datozen diru sarrerak ditu.



Egoera ekonomikoa	E makumeak	Gizonak	Guztira
Diru sarrerarik gabeko pertsonak	193	244	437
Diru sarrerak dituzten pertsonak	415	399	814
Guztira	608	643	1251



Lan egoera

Pertsonen %73a langabezian dago, eta horietatik %54ak 45 urte baino gehiago du. Nabarmentzekoa da, halaber, pertsonen %17k ez duela lan baimenik.



Lan egoera	E makumeak	Gizonak	Guztira
Langabeak	466	450	916
Lanean dauden pertsonak	65	27	92
Lan baimenik ez duten pertsonak	77	166	243
Total	608	643	1251



Zentro desbideratzaileak

Pertsonen %59 beste erakunde edo baliabide orokor batzuetatik iristen dira, eta %29 gizarte zerbitzuetatik, oinarriko zerbitzuetatik eta zerbitzu espezializatuetatik.

Zentro deribatzaileak	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Oinarriko gizarte zerbitzuak	97	123	220
Baliabide/zerbitzu espezializatuak	48	102	150
Beste erakunde edo baliabide orokor batzuk	385	350	735
Sarturen erabiltzaileak	78	68	146
Guztira	608	643	1251



5.- LAGUNTZAILEAK

Finantzazioa

Erakunde edota instituzio askoren laguntzari esker garatzen du bere lana Erroak.



Aliantzak




Urte hauetan zehar, aliantzak sortu ditugu hirugarren sektoreko hainbat erakunde eta sareekin. Horrela lan eginda jarduera koordinatuak egin ditzakegu, pertsona gehiagorengana iritsi eta ingurunean ikusgarritasun eta eragin handiagoa izan.



6.- HEMEN AURKITUKO GAITUZU






Arreta zentroa

-  943472426
-  erroak@erroak.sartu.org
-  Bizkaia Pº, 15-16 behea.
20010 Donostia.






Prestakuntza zentroa

-  943474083
-  martutene@erroak.sartu.org
-  Pol. 27, Ubarburu 30.
20014 Donostia.



Prestakuntza zentroa

-  943094900
-  martutene@erroak.sartu.org
-  Pol. 27, Ubarburu 12.
20014 Donostia.



www.erroaksartu.org

7.- AMAITZEKO...

Amaitzeko, esan behar da ahal dugun guztia egiten eta gure profesionaltasunaz baliatzen jarraitzen dugula pertsonen premiei eskubidez merezi duten eran erantzuten jarraitzeko. Azpimarratu nahi dugu, halaber, enplegarritasuna, gizarteratzea eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna hobetzeko dugun konpromisoa, ahalduntzea, balio aldaketa, bizitzaren iraunkortasuna eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borroka sustatuz.

Espero dugu ERROAKetik igaro diren pertsonak egoera pertsonaletan hobekuntzaren bat ekarri izana handik igarotzeak. Saiatu, behintzat, saiatu gara, gure indar, ilusio eta gogo guztiarekin.

